

 **170.18.** Lagunak *reality*a

*Reality honetan, ikus-entzuleen saria ematen dute. Horretarako, haien botoak erabiltzen dituzte.*

*Pasarte honetan, saria jasotzeko izendatuen berri emango du aurkezleak.*

*Esan testua partaideen eta ikusleen artean, emozio-puntua bermatuta.*

Eta gogoratu, lehen genioen bezala, 32 lehiakidek hartu dutela parte denera. Eta zuen botoei esker, horietako batek saria izango du, zuen faboritoak saria izango du: bi lagunentzako egonaldia berak aukeratzen duen lekuan; izan liteke hemen, Euskal Herrian, edo Espainian, Frantzian, Portugalen edota Italian. Bi lagunentzako egonaldia.

Gaur, faboritoen artean, bozkatuenak nor diren jakingo dugu; gaur ezagutuko ditugu publikoaren faboritoak. Eta orain jakingo dugu nor den lehenengoa.

Mesedez, Tirapu, momentu garrantzitsuetarako musika... hemen atzeko lehendabiziko argazki horietako bati buelta ematera goazelako. Bost horiek dira publikoaren faboritoak.

Lehendabizikoa: ikus-entzuleek hala erabakita, bost bozkatuenen artean dago... Urtzi Angiano.

Orain, bigarrena nor ote den ezagutuko dugu. Tirapu, momentu garrantzitsuetarako musika, faborez. Zuek, ikus-entzuleek, hala erabakita, edizio honetako bost bozkatuenen artean dago... Eider Lejardi.